

Emakumeak lan-munduan AHOTSAK

Teresa goikoetxea

Eskolara hasi nintzen zazpi urtekin-edo, eta joaten nintzen hilean behin edo bi bider tormenta zenean. Badakizu zeratik? Eguaraldi txarra zenean, baratzera joateko eguraldi txarra zela, eta eskolara orduan joaten nintzen.

Gregori Gandiaga

Eskola, eta nik esaten nion aitari: nik eskolara bihar joan behar dut? Eskolara ezin leike joan, beharra dago asko-eta. Oraindaino zortzi urte-eta... Baina nik be eskolara joan nahi; mutilak joaten ziren, zaharragoak ni baino; Eskolara joan behar dute, soldadu joan behar dute eta eskribitzen ikasi behar dute, etxera karta idazteko. Zuek neskak josten. Eta josten noiz ba? Gero, hogeitortegi urtegaraz.

Paxkuala Kortadi. Hernani, 1923

Maestrak etorri ziren gure etxera, bi maestra, esanez niri karrera emateko, aitarengana eta amarengana. Eta gogoratzen naiz nola aitak nola kontestatu zion, "Zertarako behar du karrera baserriko neskatxak? Hobe du, askoz ere, josten ikasi, eta beste alde batera preparatu".

Rosario Amundarain. Ikaztegieta, 1937

Mutilak denak, e, eskolara joaten ziren, gau-eskola esaten zitzaiona. Mutilak, neskak, berriz, ez. Neskak pentsatuko zuen, ba, behin ezkonduz gero, etxean gelditu behar zuela eta zertarako ikasi esango zuen, eta gu ez ginen joaten neskak. Baina ez hori gure etxean bakarrik, e, denetan; mutilak bakarrik joaten ziren.

Joxe Mari Gorrotxategi. Tolosa, 1929

Niretzat ez zuten ezertxo ere egiten. Pentsatu ere ez Valladolidera joatea estudiatzera. Pentsatu ere ez, e. *Osea que*, kulturarik ez zeukaten. Eta zer egiten zuen neskak? Ba, lanera edo neskame.

Miren Azkarate. Bergara, 1929

Lehenengo, lehenengo akordatzan naiz hiru edo lau bakarrik joaten zirela emakumeak ofizinetara. Eta gero, ja bai, gero, ja, hasi ziren, ja, gehien izaten, ja, *ofizinetan* emakumeak.

Fabrika horretara joaten zen emakume asko lan egitera. Baina emakumeak ezkontzen zirenean, gehienak, ezkondu eta segituan, lanari lagatzen zioten. Orduan ez zen lanean segitzeko gogo handirik. Alargunak eta, bai, beharrezkoak ziren, *osea que* behartasunak erosten zituen, baina, bestela, ezkontzen zirenean emakumeak, lanari laga egiten zioten. Klaro! Umeak etortzen ziren segituan!

Maria Zubillaga. Tolosa, 1924

Emakumeak ezer ez zuen irabazten, eta gizonaren mende.

Sabina Arruabarrena. Astigarraga, 1928

Amonak beti hori esaten zidan. Ai, ai, ai! Zera, *jubilazioa*. Emakumea jubilatzen da betiko begiak ixten dituenean, orduantxe.

Maria Zubillaga. Tolosa, 1924

Garai batean hori zen, baina orain, emakumeek berek irabazten dute, eta orain emakumea da nagusi. Baina orduan gizonak izaten ziren nagusi, e!